

AOB

[AROZAMENAREN ETA XALBADORREN OMENEZ]

Arozamenaren,
Xalbadorren omenez,
geure geu izatearen
sustrai tartezi, iturri,
barru nahi dut,
hurrundik
datorren,
ari den,
darien
barrurengo
euskaldun izatearen,
irautearen urez.

Bada urik,
oraindik bada
euskladungoaren
bizitza den
berebiziko ur
berarizkorik
iturri
etorri
ekarri
bizitan,
sustraitik
gerrira
ahora
kantari
arnasa
larrosa
berotan
bizirik,
gizaldiz
dirauen,
ezpainez
laztanet
ametsez
darraien
kultur
itur
-urik bada
amarik ama,
hasperen hasgoren jatorrez.

Zer bestek zituen eratu
Xalbador-Arozamenak,
zerk anpatu,
zerk ekarri,
zerk gainezka egin
eragin

jario beroz,
zerk loratu bertsoz?
Euskaldun izatearen,
irautearen urez
arrurengo
barru iturri,
geure geu izatearen sustrai tartez
nahi dut

Arozamenaren,
Xalbadorren omenez
amaren altzora igo.

Oi arnasa haura, bizitza batez
bizkortu nindun arnasa.
Oi gizaldien ezpainez ezpain
iritxi zaidan larrosa.
Antolatzen dit zoragarrizko
misteriozko mataza,
bizi araziz neure herri zaharrak
bizitu duen ametsa.

Nik herriari zor diodala
herritik hartu dudana.
Amaren bidez heldu zitzaidan
euskal mezuen gutuna.
Herri maitean kontserba dadin
haien aide ta haien guna,
utzi nahi diot, dardara gisa
nigan duten oihartzuna.

Barrentzen naute neure lurrean
arbasoen orporaino.
Kondaira baten pixuz datozkit
pausoak behartzeraino.
Hartutakoa eramango dut
geroaz odoltzeraino,
jator-legea lehenago baidut [*sic*]
bitezta-legea baino.

Doinu zahar baten inguruz dator
euskal kantuen mezua
hitz eta doinu bi-biak dute
osatzen gure salmua
herri-kantuen aide artean
ikusi nuen mundua
ipuiak ziren edo kondaira
edo-ta frutu santua?
Haien oihartzun eraginzalez
erein zidaten barrua.

Geroztik erne ta hazi zitzaidan
lore gorri bat ariman

hemen daramat hemen bizi dut
ertetzen zaidan kantuan
gerrako garrek ez zuten erre
Gernika kixkarratuan
izotzak arren gordinik dago
ondoko giro nahastuan
gogorragoa giroa-eta
gorriagoa orduan.

Bada urik,
oraindik bada
euskaldungoaren
bizitza den
berebiziko ur
berarizkorik
 iturri
 etorri
 ekarri
 bizitan,
 sustraitik
 gerrira
 ahora
 kantari
 arnasa
 larrosa
 berotan
 bizirik,
 gizaldiz
 dirauen,
 ezpainez
 laztanez
 ametsez
 darraien
 kultur
 itur
 -urik bada
 amarik ama,
 Xalbador-Arozamenen
 jario ederrez.